ARESO (Nafarroa)

COLECTIVO DE INTERVENCIÓN E INVESTIGACIÓN EN SALUD MENTAL
ADIMEN OSASUNERAKO ESKUHARMEN ETA IKERKETA TALDEA
www.joseluisdelamata.com

Kaixo, lagunok:

JOSE LUIS de la MATAren heriotzaren/bizitzaren XVII. URTEURRENA beteko da otsail honetan. Horren ondare emankorra, horren lan eskergaren fruituak lagun ditugu gure eguneroko bizitzan: eraiki zuen eskolakoak gara eta berau babeslekutzat dugu; siste-matizatu zuen ekoizpen teoriko-praktiko aberatsak modelo iraultzailea gauzatu zuen gure osasun-lanbiderako; eguneroko bizitzan eta politikan, harremanak eraiki eta zaintzeko zuen modua erreferentzia etikotzat dugu. Jose Luisek eta, jakina, Teresa Gil Ruizek gure prozesuak sostengatzen eta elikatzen jarraitzen dute, Historiatik gure historia pertsonal eta kolektibora.

Hori dela eta, Jose Luisi gure omenaldia eskaini nahi diogu eta gure eskolarentzat, IZARGAINentzat, hain esanguratsua den data hori gurekin gogoratzeko, Aresoko ERASONEA-DE LA MATAENEAn egingo dugun ekitaldian parte hartzera ere gonbidatu nahi zaituztegu: otsailaren 25ean, larunbatean, goizeko 11etan.

2022 - 23ko ikasturte honetan zehar, www.joseluisdelamata.com web-orria aberasten ari da Jose Luisen testuak aztertzeko Donostiako Izargain-DelaMataren Eskolan astero garatzen ari garen www 15. Mintegiarekin.

Mintegiaren testuinguruan, Jose Luisek, aurten berriro ere, antzerkiaz gozatzera eramango gaitu. Guztion artean, INÉS y la ALEGRÍA, antzeztuko dugu, Almudena Grandes Hernandez-ek 2010an idatzitako eleberrian oinarritua. Bilbea Memoria kolektiboaren Historiari omenaldia egitea da (1944an Aran bailara borrokalari errepublikanoek inbaditzea), denon Duintasuna bilatu zuen eta guztiak hunkitu zituen proiektu baten alde txikienetik borrokatzeko, bizitza, ahalegina eta Alaitasuna eman zituzten emakume eta gizon batzuen istorioaren bidez.

Ekitaldia bukatu eta gero, mokadu bat hartuko dugu etxean eta, ondoren, bazkaria egingo dugu (bazkarian geratuko zaretenok mezua bidali ulumago@hotmail.com helbidera, otsailaren 22a baino lehen, mesedez).

Areson zuen zain gaituzue... Etorri!
Besarkada bero bat.

Izargain-Areso
DE LA MATAENEA
2023ko otsailan